

2. sekzioa. Gerorapena eta zatikapena

36. artikulua. Gerorapenak eta zatikapenak.

1. Administrazioak ahalmena du zorren ordainketa geroratu edo zatikatzeko, zergapekoak eskatuta, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorraren 64. eta 79. artikuluetan eta erregelamendu honetan ezarritakoari jarraituz.

2. Herri Ogasunaren titulartasunekoak diren zerga zorrak eta izaera publikoko gainerako guztiak geroratu edo zatikatu daitezke, foru arauetan edo legetan aurreikusten diren salbuespenak eginda.

Atxikitzaileak edo kontura sartzera behartutakoak bete behar dituen zerga obligazioei dagozkien zorrak geroratu edo zatikatu ahal izango dira, bakar-bakarrik, baldin eta haien zenbatekoak 79.2 artikuluko a) letran xedatutakoa aplikatzeko aukera ematen badu edo, bestela, zorra bere osoan bermatzen bada martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergen Foru Arau Orokorrak, 79. artikuluko 1. apartatuan xedatutakoari jarraituz.

3. Ordainketaren zatikapena, gerorapenaren modalitatea den aldetik, haren arauen arabera arautuko da, berriaz araututa ez dagoen guztian.

37. artikulua. Eskumena.

1. Ogasun eta Finantza Departamentuak biltzen dituen zorrak geroratu edo zatikatzeko eskaerak departamentu horrek tramitatu eta ebatziko ditu, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorraren 64.8 artikuluan eta erregelamendu honetan jasotakoa eragotzi gabe.

Zor horien ordainketaren gerorapen eskaera ebazteko organo eskudunak honako hauek dira:

a) Unitate Teknikoko burua, geroratu beharreko zenbatekoak 12.000 euroko kopurua gainditzen ez duenean eta epea urtebetetik gorakoa ez denean, bai eta geroratu beharreko zenbatekoa 3.000 eurokoa baino txikiagoa denean eta epea urtebetetik gorakoa denean ere.

b) Zergabilketako eta Zerga Bulegoetako zuzendariorde nagusia, geroratu beharreko zenbatekoak 150.000 euroko kopurua gainditzen ez duenean eta epea bi urtekoa baino handiagoa ez denean.

c) Ogasuneko zuzendari nagusia, geroratu beharreko zenbatekoak 300.000 euroko kopurua gainditzen ez duenean eta epea hiru urtekoa baino handiagoa ez denean.

d) Fiskalitaterako eta Finantzatarako Departamentuko foru diputatua, gainerako kasuetan. Dena den, geroratu beharreko kopurua 3.000.000 eurotik gorakoa denean

edo epea bost urtetik gorakoa denean, Diputatu Kontseiluak aurrez baimentzea beharrezkoa izango da gerorapena onartzeko.

2. Aurreko apartatuko a), b), c) eta d) letretan jasotako kasuetan, berme-salbuespena badago martxoaren 8ko 2/2005 Zergen Foru Arau Orokorrak 79.2 b) artikuluan jasotakoaren arabera, Fiskalitaterako eta Finantzetarako Departamentuko foru diputatuak ebatziko du gerorapena, eta ebazpena emateko beharrezkoa denean Diputatu Kontseiluak baimendu behar du aurretik.

3. Aurreko 1 apartatuan jasotakoez besteko izaera publikoko gainerako baliabideak geroratzeko eskaerak, aldiz, sarrera horiei buruzko arauetan jasotakoaren arabera tramitatu eta ebatziko dira. Halako araurik ez badago, erregelamendu honen erregulazioa aplikatuko zaie ordezko gisa.

38. artikulua. Eskaera.

1. Gerorapen edo zatikapen eskaerak Zerga-bilketako Zuzendariorde Nagusiari zuzendu behar zaizkio, berak tramitatzeko, epe hauen barruan:

a) Autolikidazioak ordaindu edo aurkezteko borondatezko epean dauden zorren kasuan: Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorraren 61. artikuluko 1., 2. eta 3. apartatuetan edo, hala badagokio, dena delako sarrera publikoaren araudian ordainketa egiteko finkatuta dagoen epean.

Ondorio horietarako, zorrak epez kanpo aurkeztutako autolikidazioetatik badatoz, eskaera borondatezko epearen barruan aurkezten dela ulertuko da, bakar-bakarrik, gerorapen eskaera epez kanpoko autolikidazioarekin batera aurkezten denean.

b) Ordaintzeko epe exekutiboan dauden zorren kasuan: enbargatutako ondasunak besterentzeko erabakia zergapekoari jakinarazi arte.

2. Gerorapen edo zatikapen eskaerak datu hauek jaso behar ditu nahitaez:

a) Ordaintzera behartutakoaren eta, egonez gero, ordezkararen izen-abizenak, sozietate izena edo izendapena, eta identifikazio fiskaleko zenbakia. Orobat, jakinarazpenak nola jaso nahi diren adierazi behar da, salbu eta Administrazioarekin bitarteko elektronikoak erabiltzera behartuta dauden zergapekoak direnean. Bitarteko elektronikoak erabiltzera behartuta daudenean edo, behartuta egon gabe ere, horiek erabiltzea aukeratzen dutenek, beren helbide elektronikoa eman beharko dute jakinarazpena bidali edo eskura jarri izanaren abisua haren bidez jaso dezaten. Interesdunak ez baditu bitarteko elektronikoak aukeratzen, jakinarazpenetarako helbide bat adierazi beharko du.

b) Geroratzeko edo zatikatzeko eskatzen diren zorren zerrenda. Gutxienez datu hauek adierazi beharko dira: zorraren zenbatekoa, kontzeptua, eta, kasua bada, zorra borondatezko epean ordaintzeko azken eguna.

Gerorapen edo zatikapen eskaera ukatzeko arrazoi izango da epe exekutiboan dauden eta premiamenduzko probidentzia jakinarazita duten zor guztiak haren barruan ez

jasotzea eskaera egiteko unean, baldin eta haietarako dagoeneko amaituta badago martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergen Foru Arau Orokorrak, 61.5 artikuluan ezartzen duen ordainketa epea. Gerorapena edo zatikapena ez da ukatuko baldin eta, bidezko errekerimendua egin ondoren, hari erantzutzeko epean zorrak ordaindu edo haien metaketa eskatzen bada.

c) Gerorapena edo zatikapena eskatzeko arrazoiak.

d) Eskatzen diren epeak.

e) Geroratu edo zatikatu nahi den zorraren ordainketa edo ordainketak helbideratzeko aukeratzeko den banku kontuaren zenbakia.

f) Zer berme eskaintzen den martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergen Foru Arau Orokorrak, 79.1 artikuluan xedatutakoari jarraituz, edo, hala badagokio, zer arrazoi dauden, 79. artikuluko horren 2. apartatua aintzat hartuta, berme hori ez aurkezteko.

g) Eskatzailea konkurtso prozesu baten barruan baldin badago, adierazi behar da geroratu edo zatikatu nahi den zorra ez dela masaren kontrako kreditu bat.

h) Eskatzailearen sinadura.

3. Gerorapen edo zatikapen eskaerarekin batera, agiri hauek aurkeztu beharko dira:

a) Geroratu edo zatikatu nahi den zerga zorra autolikidazio bidez kalkulatu bada, autolikidazio horren eredu ofiziala erantsi beharko da, behar bezala beteta. Alabaina, eredu hori ez da aurkeztu beharko dagoeneko zerga Administrazioaren eskuetan dagoenean, baina, horrelakoetan, noiz eta zer prozeduratan aurkeztu den adierazi beharko da.

b) Ordezkaritzaren kasuan, ordezkaritza frogatzen duten dokumentuak.

c) Gerorapena edo zatikapena indarrean dagoen bitartean zorrak zordunaren alde aitortu litezkeen kredituekin konpentsatzeko eskaera, erregelamendu honen 44.1.A.b) artikuluko bigarren paragrafoan xedatutakoa eragotzi gabe.

d) Diruzaintzako aurreikuspenei buruzko informazioa, gerorapena edo zatikapena eskatzen den denbora-tarterako.

e) Ordainketa epe barruan egitea behin-behinek eragozten dioten zailtasun ekonomiko-finantzarioen justifikazioa.

f) Kreditu entitateen edo elkarren bermerako sozietateen abal solidarioa edo kauzio aseguruaren ziurtagiria formalizatzeko konpromiso berariazkoa eta ezeztazina, salbu eta beste berme mota bat onartzea edo bermetik salbuestea eskatzen bada hurrengo 4. eta 5. apartatuetan xedatutako moduan.

g) Zordunak eskaera oinarritzeko egoki irizten dituen bestelako dokumentu edo frogagiriak.

4. Onartzeko eskatzen den bermea ez bada kreditu entitateen edo elkarren bermerako sozietateen abal solidarioa edo kauzio aseguruaren ziurtagiria, ordainketa geroratu edo zatikatzeko eskaerarekin eta 3. apartatuko dokumentuekin batera, honako dokumentazioa aurkeztu beharko da apartatu horren f) letrako dokumentazioaren orde:

a) Aipatutako abal konpromisoa edo kauzio aseguru ezin izan dela lortu dion erantzukizunpeko adierazpena eta horren frogagiriak, hura lortzeko zer egin den behar bezala dokumentatu behar dutenak.

b) Berme gisa eskaintzen diren ondasunen balorazio eguneratua, enpresa edo profesional espezializatu eta independenteek egina, eta, beharrezkoa bada, kasuan kasuko elkargo profesionalak bisatu behar duena.

c) Kargen ziurtagiri eguneratua, kasuan kasuko Erregistroak emana, eta bermea inskribatua duten zorretan exijigarri diren zenbateko eguneratuen ziurtagiriak, hartzekodunek luzatuak.

d) Gerorapen edo zatikapen eskaera aurkeztu aurretik itxitako azken ekitaldiko balantzea eta emaitzen kontua. Egonez gero, itxi den azken ekitaldiaren auditoretza txostena ere aurkeztuko da.

5. Bermea aurkezteko beharretik partez nahiz osorik libratzeko eskatzen denean Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arauaren 79.2 artikuluko b) ezarritakoaren arabera, ordainketa geroratu edo zatikatzeko eskaera eta 3. eta 4. apartatuetako agiriak, kasuan kasu, aurkezteaz gainera, honako dokumentazioa aurkeztu behar da:

a) Erantzukizunpeko adierazpena eta justifikazio dokumentala, aditzera emateko ez duela ondasunik, edo bermetzat eskaintzen dituenak beste ondasunik ez duela.

b) Azken hiru urteetako balantzea eta emaitzen kontua, eta, halakorik badago, auditoretza txostena.

c) Bideragarritasun plana eta, egonez gero, egoki irizten den beste edozein informazio, arlo ekonomiko, finantzario edo patrimonialetik garratzitsua dena eskatutako gerorapena bete daitekeela justifikatzeko.

6. Eskaerak ez baditu betetzen eskatutako baldintzak edo harekin batera ez badira aurkeztu beharrezkoak diren agiriak, gerorapena edo zatikapena tramitatzeko organo eskudunak hamar eguneko epea emango dio eskatzaileari, errekerimendua jakinarazi eta biharamunetik aurrera kontatuta, akatsa zuzendu edo eskatutako agiriak aurkez ditzan. Orobat, adieraziko dio hala egin ezean eskaeran atzera egindakotzat joko zaiola, eta eskaera besterik gabe artxibatuko da.

Aurreko paragrafoan adierazitakoaren salbuespen gisa, zorrak autolikidazio batetik eratorritakoak diren kasuetan, gerorapen edo zatikapen eskaerari ez bazaio eransten autolikidazio hori, ez da aukerarik emango akatsa zuzentzeko, eta eskaera ezetsi egingo da erregelamendu honetako 39. artikuluan jasotakoarekin bat.

Gerorapen edo zatikapen eskaera zorra ordaintzeko borondatezko epearen barruan aurkeztu bada, interesdunari egin beharreko errekerimenduan ohartaraziko zaio ezen apartatu honetako lehen paragrafoan adierazitako epea amaitu eta ordaintzeko epea igaro bada zorra ordaindu gabe edo aipatutako paragrafoan jasotako agiriak aurkeztu gabe, zor hori premiamenduzko bidetik exijituko zaiola, bidezko errekareruak eta interesak aplikatuta.

Akatsak zuzentzeko errekerimenduari interesdunak epe barruan erantzun arren, ulertzen bada atzemandako akatsak zuzendu gabe daudela, gerorapen edo zatikapen eskaera ukatu egingo da. Dena den, interesdunak eskaeran atzera egiten duela ulertuko da baldin eta, aurreko 2. apartatuan aipatzen diren datuak eskaeran jasota ere, errekerimendua bidali bazaio eta emandako epean ez badio erantzuten bertan ezarritako eran. Eskaera, horrelakoetan, besterik gabe artxibatuko da.

Eskaera ukatu ahal izango da eskatzaileak aurkeztutako bermea zerga Administrazioak lehenago errefusatu duenean arlo juridiko edo ekonomikotik nahikoa ez izateagatik edo egokia ez gertatzeagatik.

7. Zor batek zergapeko solidario bat baino gehiago dituenean, gerorapena edo zatikapena haietako batek eskatu eta hura ematen bazaio, zirkunstantzia horrek bereziki ukitutako zergapekoarentzat baino ez ditu sortuko ondorioak.

8. Ordaintzera behartutakoak gerorapen edo zatikapen eskaerarekin batera ordaintzeta eteteko eskaera bat aurkezten badu administrazio bideko berrikuspenari buruzko araudi aplikagarriaren babesean, izaera subsidiarioz bada ere bata bestearekiko, ulertuko da atzera egiten duela gerorapen edo zatikapen eskaeran, eta eskaera hori etete eskaeraren ondoren aurkezten badu, gerorapen edo zatikapen eskaera ez da onartuko.

39. artikulua. Eskaerak ez onartzea.

1. Organo instruktoreak kasu hauetan ez ditu onartuko gerorapen eta zatikapen eskaerak:

a) Zorra autolikidazio bidez aitortu behar denean eta autolikidazio hori gerorapen edo zatikapen eskaera baino lehen edo harekin batera aurkeztu ez denean.

b) Autolikidazioa aurkeztu denean lehenagotik egiaztapen edo ikerketa prozedura bat hasita egonik, baldin eta prozedura hori etenda geratu bada erruduntasun testigantza jurisdikzio eskudunari pasatu zaiolako edo Fiskaltzari espedientea helarazi zaiolako Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arauaren 249. artikuluko kasuetako bat betetzeagatik. Ezinbesteko baldintza da, orobat, gerorapen edo zatikapen eskaera egiaztapen eta ikerketa prozedura horrekin

lotuta dauden eta jurisdikzio eskudunari edo Fiskaltzari ezagutarazi zaizkion kontzeptu eta zergaldiei buruzkoa izatea.

Apartatu honen b) paragrafo honetan jasotako zirkunstantziak gerorapen edo zatikapen eskaera tramitatzen hasi eta gero gertatzen badira, eskaera baliorik gabe geratuko da zuzenean, eta Fiskaltzari edo organo jurisdikzionalari haren aurkezpenaren berri eman beharko zaie.

2. Aurkezten diren gerorapen edo zatikapen eskaerak lehenagotik ukatu diren beste batzuen errepikapena badira, eskaera horiek onartu gabe geratuko dira aurretik ukatutakoaren aldean aldaketa nabarmenik ez dakartenean eta, bereziki, errepikatze horren helburua zergabilketaren kudeaketa luzatzea, zailtzea edo eragozte denean.

3. Eskaera ez onartzeak berekin ekarriko du gerorapen edo zatikapen eskaera ez aurkeztutzat jotzea ondorio guztietarako.

4. Eskaera ez onartzeko erabakiaren aurka errekurtsioa edo erreklamazio ekonomiko-administratiboa aurkeztu ahal izango da.

40. artikulua. Bermeak.

1. Gerorapena edo zatikapena eskatzen duen zergapekoak bermea aurkeztu behar du, eta berme hori izan daiteke kreditu entitate batek edo elkarren bermerako sozietate batek emandako abal solidarioa edo kauzio aseguruaren ziurtagiria.

Eskatzailea administrazio publiko bat denean, ez da exijituko bermerik.

2. Abal edo ziurtagiri hori lortzerik ez dagoenean edo haren aurkezpenak arrisku larrian jar dezakeenean jarduera ekonomikoaren bideragarritasuna, eskatzaileak berme hauetako bat eskaini beharko du, ondoren zehazten den hurrenkeran:

a) Ondasun higiezinaren hipoteka.

b) Ondasun higigarrien hipoteka.

c) Bahia, lekualdaketarekin zein lekualdaketarik gabe.

d) Fidantza pertsonal eta solidarioa.

e) Askiztat jotzen den beste edozein.

3. Borondatezko epean dagoen zorraren zenbatekoa eta gerorapenak sortutako berandutze interesak estali behar ditu bermeak, gehi bi kopuru baturatik ateratzen denaren ehuneko 25.

Zorra epe exekutiboan dagoenean, bermeak zenbateko hauek estali beharko ditu: geroratutako zenbatekoa, epe exekutiboko errenergua, eta gerorapenak sortzen dituen berandutze interesak, gehi kopuru horien baturatik ateratzen denaren ehuneko 5.

4. Zatikapena eskatzen den kasuetan, zilegi izango da berme bakarria eratzea zatiki guztietarako, edo berme partzial eta independenteak eratzea zatiki baterako edo gehiagotarako.

Zorra borondatezko epean badago, bermeak zenbateko hauek estali beharko ditu: bermatzen dituen zatikien zenbatekoa, tronkoagatik eta berandutze interesengatik zatikiei gaineratzen zaien zenbatekoa barne, gehi bi kopuru baturatik ateratzen denaren 100eko 25.

Zorra epe exekutiboan dagoenean, bermeak zenbateko hauek estali beharko ditu: bermatzen dituen zatikien zenbatekoa, epe exekutiboko errekarua barne, zatikapenak sortzen dituen beraduntze interesa, gehi kopuru horien baturatik ateratzen denaren ehuneko 5.

5. Gerorapena edo zatikapena tramitatzeko eskumena duen organoak baloratuko du bermeak ekonomikoki eta juridikoki aski diren ala ez.

Balorazio hori konplexutasun berezikoa denean, zilegi izango da Gipuzkoako Foru Aldundiko beste zerbitzu batzuei txostena eskatzea edo kanpoko zerbitzuak horretarako propio kontratatzea.

Abala edo kauzio aseguruaren ziurtagiria erabiliz eratzen den bermearen indarraldiak gutxienez sei hilabetetan gainditu behar du bermatutako epearen edo epean mugaeguna.

Berme gisa eskainitako ondasunaren balorazioa, haren gaineko kargak kenduta, halakorik bada, ez bada nahikoa gertatzen gerorapena edo zatikapena erregelamendu honetan ezarritako eran bermatzeko, eskatzaileari errekerituko zaio hamar eguneko epean, errekerimendua jakinarazi eta biharamunetik kontaktzen hasita, berme osagarria aurkezteko edo hura ezin aurkeztea frogatzeko, eta, horretarako, erregelamendu honen 38. artikuluko 4. eta 5. apartatuetan adierazitako dokumentazioa aurkeztu beharko du.

Errekerimenduari ez bazaio kasurik egiten edo, kasu eginda ere, ulertzen bada bermea osatu gabe dagoela edo hura ezin aurkeztea ez dela justifikatu, eskaera ukatuko da berme nahikorik ez egoteagatik, eta errekerimenduan horri buruz ohartaraziko zaio eskatzaileari.

6. Bermea bi hilabeteko epean formalizatu behar da, gerorapena emateko erabakia jakinarazi eta biharamunetik aurrera kontaktuta, eta hura formalizatzea ezinbestekoa izango da gerorapena eraginkorra izan dadin. Epe hori beste bi hilabetez luzatu daiteke baldin eta, hura amaitu baino lehen, eskatzaileak modu sinesgarrian frogatzen badu bermea ezin duela hasierako epean formalizatu.

7. Bi hilabeteko epea, edo, kasua bada, luzapenarena bermea formalizatu gabe igarotzeak ondorio hauek izango ditu:

a) Eskaera borondatez ordaintzeko epearen barruan aurkeztu bada, bermea aurkezteko epea amaitu eta hurrengo egunean epe exekutiboa abiatuko da, premiamenduzko prozedurari hasiera emango zaio martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergen Foru Arau Orokorrak, 171.1 artikuluan jasotako eran, eta zorraren tronkoa eta epe exekutiboko erreargua ordainaraziko dira.

Ordaintzeko borondatezko epea amaitu ondorengo egunetik bermeak formalizatzeko epea bukatu arte sortutako berandutze interesak likidatu egingo dira, aipatutako foru arauaren 26. artikuluan xedatutakoagatik gerora sor daitezkeenak eragotzi gabe.

b) Gerorapena epe exekutiboan eskatu bada, premiamenduzko prozedurarekin jarraituko da.

8. Bermearen onarpena eta kitapena agiri administratibo bidez formalizatu daiteke, eta hipoteken araudian jasota dauden kasuetarako, agiri hori erregistro publikoetako arduradunei helarazi behar zaie, haren edukia erregistroetan jasota utz dezaten.

9. Bermeak askatuko dira bermatutako zorra bere osoan ordaindu ondoren, errearguak, gerorapen edo zatikapenaren berandutze interesak eta kostuak ere barne, halakorik bada. Bermeak partzialak eta independenteak badira, independenteki askatu beharko dira haietako bakoitzak bermaturiko epeak ordaindu eta gero.

Zatikapenen kasuan, zor osoa abal bidez edo kauzio aseguruaren ziurtagiriaren bitartez bermatuta badago, eta epeak mugaegunak iritsi ahala ordaintzen badira, hasierako abal edo ziurtagiriaren ordeztu beste bat eratu daiteke mugaegunera iritsi gabeko zorra bermatzeko, aurreko artikuluetan jasotako baldintzetan.

10. Nolanahi dela ere, bermea eskaini, formalizatu, onartu, exekutatu eta deuseztatzeak dakartzan gastu guztiak ordaintzera behartutako pertsonaren kontura joango dira.

11. Sententzia edo ebazpen administratibo irmo batek bigabekotzat jotzen badu zerga zorra edo zehapena, haren ordainketa geroratu edo zatikatzeko emandako bermeen kostua Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorren 33. artikuluan jasotakoaren arabera itzultzeko garaian, tramitazioa eta ebazpena gauzatuko dira inpugnatutako egintzen exekuzioa eteteko ematen diren bermeen kostuak itzultzeko ezarrita dagoenari jarraituz.

12. Errekurtso edo erreklamazio bat partez onesten bada eta onesteko ebazpena ezin bada exekutatu errekurtso eta erreklamazioen araudi erregulatuarekin jarraituz, ordaintzera behartutako pertsonak eskubidea izango du, hala eskatuz gero, zorra geroratu edo zatikatzeko emandako bermea proportzionalki murriztu dadin.

Ondorio horietarako, gerorapen eskaera bideratu duen organoak, interesdunak eskaera aurkeztu eta 15 eguneko epean, kuantifikatu behar du zenbateko zorra aterako zen errekurtso edo erreklamazioaren ebazpena exekutatu izan balitz. Kalkulu

hori lagungarria izango da bai murriztapenaren zenbatekoa zehazteko bai, horren ondorioz, eratuta utzi behar den bermearen zenbatekoa ezagutzeko.

Dena den, aurreko bermeak geratzen den zorraren ordainketari lotuta jarraituko du, eta indarrean mantenduko da harik eta geratutako zorraren zenbatekoa estaltzen duen berme berria formalizatu arte.

Aipatutako organo instruktoreak bermea ordezteko eskumena ere izango du, artikuluko honetan ezarritako baldintzen barruan.

41. artikulua. Badaezpadako neurriak hartzea, ordaintzera behartutako pertsonak eskatuta, gerorapen edo zatikapen berme gisa.

Bermearen formalizazioak gehiegizko kostua badu zorraren zenbatekoaren eta epearen aldean, eta ordaintzera behartutako pertsonak zerga itzulketak edo bestelako ordainketak eskatuak baditu bere alde, edo erregistro publikoetan inskribatuta dauden eta prebentiboki enbarga daitezkeen ondasun edo eskubideen titular bada, beharrezko bermeen ordezkariak neurriak hartzeko eskatu diezaiotke Zerga-bilketako Zuzendariordetza Nagusiari.

Gerorapen edo zatikapena ebazteko erabakian bertan, Zerga Administrazioak eskaera onartu edo ukatuko du, eta horretarako kontuan hartuko du, besteak beste, zein den zordunaren egoera ekonomiko-finantzarioa edo zer izaeratakoa den badaezpadako neurria aplikatuko liokeen ondasun edo eskubidea. Nolanahi ere, arrazoituta hartuko du erabakia.

Eskaera ukatuko du, ondasun edo eskubide horiek bahitu ditzakeenean bahitura arauari buruzko III. tituluko II. kapituluaren 2. sekzioko bigarren azpisekzioan jasotakoaren arabera.

Zergabilketako Zuzendariordetza Nagusiak izango du badaezpadako neurriak hartzeko eskumena. Beharrezko bermeen ordezkariak badaezpadako neurriak hartzeak sortutako kostuak, bestetik, ordaintzera behartutako pertsonaren kargura joango dira, eta III. tituluko II. kapituluaren 5. sekzioan jasotakoa aplikatuko zaie horiei.

Gerorapen edo zatikapena ez bada betetzen, sekzio honetan ordainketa ezari buruzko kasuetarako izaera orokorrean jasotakoa aplikatu behar da. Bermea premiamenduzko prozedura administratiboaz exekutatu aurretik, badaezpadako neurria behin betikotzat hartu behar du, hala badagokio, zergabilketa organoak.

Gerorapen edo zatikapen eskaera borondatezko epean aurkezten bada eta eskaera horretan betetzen badira martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergen Foru Araua Orokorrak, 78.1 artikuluan aurreikusten dituen zirkunstantziak, kautelazko neurriak hartuko ahal izango dira, artikuluko horretan araututakoak zehazki, zorra kobratzea ziurtatzeko, nahiz eta horrek ez duen eragotziko egindako eskaerari buruz ebazpena ematea hura tramitatzen den bitartean.

42. artikulua. Bermeak aurkeztetik salbuestea.

1. Martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergen Foru Arau Orokorrak, 79.2 artikularen a) letran xedatutakoarekin bat etorritik, zilegi izango da zergapekoa erabat edo partez salbuestea bermeak eratzeko obligaziotik, honako kasuetan:

a) Zatikatzeko eskatzen diren zorrak gehienez 3.000 eurokoak direnean.

b) Eskatzen diren zatikapenek hilabeteko epemuga dutenean, baldin eta zorren zenbateko osoa 12.000 eurotik gorakoa ez bada eta zatikapenak urtebeteko epea gainditzen ez badu.

c) Eskatzen diren zatikapenek hilabeteko epemuga dutenean, baldin eta zorren zenbateko osoa 150.000 eurotik gorakoa ez bada, zatikapenak bi urteko epea gainditzen ez badu, eta hura eman aurretik eskatzaileak zatikatuko den zorraren ehuneko 20 ordaintzen badu gutxienez.

d) Eskatzen diren zatikapenek hilabeteko epemuga dutenean, baldin eta zorren zenbateko osoa 150.000 eurotik gorakoa bada, zatikapenak bi urteko epea gainditzen ez badu, eta hura eman aurretik eskatzaileak gutxienez 30.000 euro ordaintzen baditu zatikatu beharreko zorra 150.000 euro baino handiagoa izan ez dadin.

2. Aurreko apartatuan adierazitako zenbatekoak zordun bakoitzarengatik aplikatuko dira, haren zor guztiak kontuan hartuta.

3. Aurreko 1. puntuko c) eta d) letretan aipatu diren gutxienerako sarrerak kalkulatzeko ez beste ezertarako, ulertuko da zatikatze eskatzen den zorra honako hau dela:

— Ordaintzeko epe exekutiboan dauden zorren kasuan, borondatezko epean zor zen eta ordaindu ez den zenbatekoa, gehi premiamenduzko errekaru arruntari dagokiona.

— Gainerako zorren kasuan, borondatezko epean zor zen eta ordaindu ez den zenbatekoa.

4. Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuak foru agindu bidez ezarriko du nola eta zein epean egingo diren gutxienerako sarrera horiek.

5. Gerorapena eskatu aurretik zorren ordainketa erabat edo partez bermaturik badago edozein motatako bermea dela medio, gerorapena besterik gabe eskatzea ez da arrazoi izango bermea itzultzeko, eta hari eutsiko zaio gerorapen prozedurara berriaz zuzendutako berme berri bat aurkeztu arte. Alabaina, zorduna bermea aurkezteko obligaziotik salbuetsita badago artikulua honetan jasotakoari jarraituz, hori ez da hala izango, eta bermea itzuli egingo zaio gerorapena onartu eta gero.

6. Bermea aurkeztetik erabat edo partez salbuetsita dauden gerorapen edo zatikapenak, hain zuzen ere martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergen Foru Arau Orokorrak, 79.2 artikularen b) letran aipatutakoak, indarrean dauden bitartean, Zerga-bilketako Zuzendariorde Nagusia gerorapena

edo zatikapena instruitzeko eskumena duen organoak zordunaria eskatu diezaioke informazioa eman dezala bere egoera ekonomiko, finantzario eta patrimonialari buruz. Orobat, bermea aurkeztetik salbuetsitako gerorapen edo zatikapenak irauten duen denboran, onuraduna behartuta dago bere egoera ekonomiko edo patrimonialak izan ditzakeen aldaketan berri ematera gerorapen edo zatikapen espedientea tramitatzen duen organoari, zorra bermatzea ahalbidetzeko. Horrelakoetan, berme nahikoa eratu beharko da.

Bereziki, gerorapenaren edo zatikapenaren indarraldian zehar, mozkinak banatzen edo kapital itzulketak egiten badira, bermea eratu beharko da geratzen diren zorrak ordaintzeko.

Apartatu honetan ezarritako obligazioak aintzat hartu ezean, gerorapena edo zatikapena betegabetzat joko da.

43. artikulua. Tramitatzea.

1. Zerga-bilketako Zuzendariorde Nagusian gerorapena edo zatikapena instruitzeko eskumena duen organoak likidezia falta eta baliabideak sortzeko ahalmena aztertu eta ebaluatuko ditu martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergen Foru Arau Orokorrek, 64.1 artikuluan jasotakoaren ondorioetarako, eta bermetik erabat edo partez salbuesteko eskatzen bada, egiaztatuko du hura lortzeko behar diren baldintzak betetzen diren edo ez.

Gerorapen edo zatikapen eskaeraren espedientea ebazte aldera, organo instruktoreak egoki irizten duen informazio eta dokumentazioa errekeritu diezaioke eskatzaileari, eta, bereziki, berme gisa eskainitako ondasunen titulartasunari, deskripzioari, egoerari, kargei eta erabilerari dagokiona.

Aurreko tramiteak egin ondoren, Zerga-bilketako Zuzendariorde Nagusiko organo instruktoreak ebazpen proposamena egingo du, eta organo eskudunari helaraziko dio ebazpena eman dezan.

2. Prozedura ebazteko gehieneko epearen barruan, behin-behineko egutegi arrazoitu bat ezarri daiteke ordainketak egiteko, harik eta gerorapen eskaera ebazten den arte.

3. Tramitazioaldian eskatzaileak zorra ordaintzen badu, bere eskaeran atzera egiten duela ulertuko da, eta berandutza interesak likidatuko zaizkio.

44. artikulua. Ebazpena.

1. Edukia.

A. Ordainketa geroratu edo zatikatzea onartzen duen ebazpenak datu hauek zehaztu behar ditu:

a) Epeak, zenbatekoak eta gerorapenaren edo zatikapenaren gainerako baldintzak. Eskatutakoez besteko epe eta baldintzak adierazi daitezke ebazpenean.

Nolanahi ere, epeen mugaegunak kasuan kasuko hilaren 10a edo 25a izan beharko du. Gerorapen edo zatikapen batek zor bat baino gehiago hartzen dituenean, bakoitzaren epeak eta zenbatekoak bereizita adierazi behar dira.

b) Ebazpenean egoki irizten diren baldintzak ezarri ahal izango dira ordainketa eperik laburrenean egingo dela ziurtatzeko, geroratu edo zatikatutako zorraren lehentasuna bermatzeko, eta eskatzaileak zerga obligazioak behar bezala betetzeko. Bereziki, eta erregelamendu honen 38.3 artikuluko c) letran aurreikusitako eskaera eragotzi gabe, baldintzak ezarri daitezke Gipuzkoako Foru Aldundiak ebazpenaren indarraldian zehar zergapekoari egin behar dizkion ordainketak gerorapena edo zatikapena betetzeak baldintza ditzan, zenbatekoak jarduera ekonomikoaren jarraipena eta bideragarritasun ekonomikoa arriskuan jarri gabe. Ondorio horretarako, eta ebazpenak besterik esaten ez badu, gerorapenak edo zatikapenak bermea aurkeztetik erabat edo partez salbuetsita ematen direnean, ulertuko da ebazpena ematen den unean konpentsazio eskaera egiten dela, eta horrek ahalbidetuko du konpentsazioak kredituak edo zorrak agertu bezain pronto izatea ondorioak, baita horrek epemugak aurreratzea dakarrenean ere, bidezko diren berandutze interesak berriro kalkulatzeko eragotzi gabe.

c) Ebazpenaren indarraldian zehar eskatzaileak bere zerga obligazioak egunean izatea baldintza izan daiteke gerorapena emateko.

d) Ebazpenak berandutze interesen kalkulua ekarri behar du.

e) Adierazi behar du zer ondorio izango dituen bermea epe barruan ez eratzeak, epeak ez ordaintzeak edo ezartzen diren gainerako baldintzak ez betetzeak.

B. Gerorapena edo zatikapena ukatzen duen ebazpenak:

a) Eskatzaileari ohartarazi behar dio eskaera borondatezko epean aurkeztu bada 10 eguneko epean ordaindu behar duela zorra, jakinarazpena jaso eta biharamunetik kontatzen hasita. Epea igaro eta zorra ordaindu gabe badago, epe exekutiboa hasiko da.

b) Gerorapena edo zatikapena epe exekutiboan aurkeztu bada, eskatzaileari ohartarazi behar zaio premiamenduzko prozedura abiatuko dela, lehenago abiatu ez bada.

2. Ukatzeko arrazoiak:

Besteak beste, hauek izan daitezke gerorapena edo zatikapena ukatzeko arrazoiak:

- Gerorapen edo zatikapenari aurre egiteko baliabideak sortzeko ahalmena behar bezala ez frogatzea.

- Lehenago emandako beste gerorapen edo zatikapen batzuk ez betetzea.

3. Jakinarazpena.

Ebazpena legez ezarritako modu eta baldintzetan jakinarazi behar zaio ordaintzera behartutakoari.

4. Baldintzen aldaketa.

Gerorapena edo zatikapena eman eta gero, zordunak haren baldintzak aldatzea eskatzen bada, eskaera gerorapena edo zatikapena eman duen organoak ebatzi behar du. Eskaera horrek ez du inola ere etete ondorioz izango. Horrelako eskaerak tramitatu eta ebazteko, izaera orokorreko gerorapen eta zatikapen eskaerentzako ezarrita dauden arau berberak aplikatuko dira.

5. Beste betebeharrak.

Ematen diren gerorapen edo zatikapenak erregelamendu honen 38. artikuluko 4. eta 5. apartatuetan jasotakoak bada, eta haien ebazpenaren indarraldian zehar kapital zabalkuntza bat gertatzen bada, Zerga-bilketako Zuzendariorde Nagusia gerorapena edo zatikapena instruitzeko eskumena duen organoari hartutako erabakien berri eman beharko zaio.

Aipatutako organoak auditoretza prozedurak edo egoki irizten dituen bestelakoak erabili ahal izango ditu ezarritako baldintzak eta obligazioak betetzen direla kontrolatzeko. Orobat, berari dagokio deklaratzeko beharrezko zirkunstantziak gertatzen direla gerorapena edo zatikapena betegabetzat jotzeko. Zehazki, gerorapen edo zatikapenen epea bi urtetik gorakoa bada, haien indarraldian zehar, aipatutako organoak informazioa eskatu diezaioteko zordunari haren egoera ekonomiko-finantzarioari buruz eta diruzaintzako plan eta aurreikuspenei buruz.

Eskatutako informazioa ez aurkezteak berekin ekarriko du gerorapena edo zatikapena betegabea deklaratzeko.

45. artikulua. Interesen kalkulua.

1. Gerorapena ematen bada, zor geroratuaren gainean berandutze interesak kalkulatu behar dira borondatezko epea amaitu ondorengo egunetik hasi eta emandako epea bukatu arteko denboragatik.

Gerorapena epe exekutiboan eskatu bada, epe exekutiboko erretegia ez da sartuko interesak kalkulatzeko oinarrian. Sortutako interesak zor geroratuarekin batera ordaindu behar dira.

2. Zatikapena ematen bada, berandutze interesak zorraren zatiki bakoitzagatik kalkulatu dira.

Borondatezko epea amaitu ondorengo egunetik emandako epea bukatu arte sortutako interesak konputatu dira zorraren zatiki bakoitzeko. Zatiki bakoitzagatik sortzen diren interesak zatiki horrekin batera ordaindu beharko dira dagokion epean.

Zatikapena epe exekutiboan eskatu bada, epe exekutiboko errekgua ez da sartuko interesak kalkulatzeko oinarrian.

3. Gerorapena edo zatikapena ukatzen bada, berandutze interesak honela likidatuko dira:

a) Borondatezko epean eskatu bada, borondatezko epea bukatu ondorengo egunetik ezezko ebazpena eman arte igarotako denboragatik.

b) Epe exekutiboan eskatu bada, ordainketa egin eta gero likidatuko dira interesak.

4. Gerorapenean edo zatikapenean atzera egiten bada, berandutze interesak honela likidatuko dira:

a) Eskaera borondatezko epean aurkeztu bada:

- ordaintzeko borondatezko epea amaitu ondorengo egunetik atzera egin dela ulertu arte igarotako denboragatik, erregelamendu honen 38. artikuluko 6. apartatuan aurreikusitako kasuetan.

- ordaintzeko borondatezko epea amaitu ondorengo egunetik eskaeran atzera egin dela berariaz jakinarazi arte igarotako denboragatik.

- ordaintzeko borondatezko epea amaitu ondorengo egunetik ordainketa egin arte igarotako denboragatik, erregelamendu honen 47. artikuluan aurreikusitako kasuan.

b) Epe exekutiboan eskatu bada, interesak ordainketa egin ondoren likidatuko dira, ordainketaren egunera arte.

5. Gerorapenaren erabakian jasotako termino edo baldintzaren bat ez bada betetzen, berandutza interesak honela likidatuko dira:

a) Eskaera borondatezko epean aurkeztu bada, geroratutako zorrak borondatez ordaintzeko epea amaitu ondorengo egunetik gerorapena betegabea deklaratu arte, edo, erregelamendu honen 46. artikuluko kasuetan, hura betegabetzat hartu arte igarotako denboragatik.

b) Eskaera epe exekutiboan aurkeztu bada, zorra kobratu ondoren likidatuko dira interesak.

6. Zatikapenaren erabakian jasotako termino edo baldintzaren bat ez bada betetzen, berandutza interesak honela likidatuko dira:

a) Eskaera borondatezko epean aurkeztu bada, ordaindu gabeko zor zatikatuari dagokionez, interesak likidatuko dira borondatez ordaintzeko epea amaitu ondorengo egunetik zatikapena betegabea deklaratu arte, edo erregelamendu honen 46. artikuluko kasuetan, hura betegabetzat hartu arte igarotako denboragatik.

b) Eskatera epe exekutiboan aurkeztu bada, zorra kobratu ondoren.

46. artikulua. Nola jokatu zorra ordaintzen ez denean eta hartzekodunen konkurtsoa dagoenean.

1. Gerorapenetan, zorra ez bada osorik ordaintzen horretarako emandako epean, honela jokatu da:

a) Gerorapena borondatezko epean aurkeztu bada, hurrengo egunean epe exekutiboa hasiko da, eta ordaindu ez den zorreratik premiamenduzko probidentzia emango da, beste ezein tramiterik gabe.

b) Gerorapena epe exekutiboan eskatu bada, premiamenduzko prozedura abiatuko da berehala, lehendik ez badago abiatuta, eta hasita baldin badago, orduan harekin jarraituko da besterik gabe; zilegi den kasuetan, emanda dagoen bermea exekutatu daiteke aurrenik.

2. Zatikapenak borondatezko epean eskatu badira eta epemugara behin iritsita bi epe ordaindu gabe badaude, ordaintzeko dauden zatiki guztiak epez kanpokotzat joko dira, eta horrek berekin ekarriko du epe exekutiboa hasia eta premiamenduzko probidentzia besterik gabe ematea ordaindu ez den zorreratik.

Zatikapenak epe exekutiboan eskatu diren kasuetan, epemugara behin iritsita bi epe ordaindu gabe geratu badira, premiamenduzko prozedura abiatuko da berehala, lehendik ez badago abiatuta, eta hasita baldin badago, orduan harekin jarraituko da besterik gabe, ordaindu gabeko zor guztiarengatik; zilegi den kasuetan, emanda dagoen bermea exekutatu daiteke aurrenik.

Zatikapena ondoriorik gabe uzteko ez da beharrezkoa izango aurreko bi paragrafoetan aipatutako bi epeak ez betetzea. Izan ere, zatikapena ondoriorik gabe gera daiteke, baita ere, baldin eta, epe horietako bat urraturik, Zerga-bilketako Zuzendariorde Nagusian espedientea instruitzeko eskumena duen organoak errekerimendua egin badu eta 10 eguneko epean betetzen ez bada.

Bermeak exekutatzeko garaian, aplikagarria izango da Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorrak 172. artikuluan jasotakoa eta, dagokion kasuan, erregelamendu honen 75. artikuluan araututako prozedura. Lortzen den zenbateko likidoa geratzen den zorra ordaintzeko erabiliko da, kostuak, berandutze interesak eta errekareruak barne.

3. Ordaintzera behartutakoaren konkurtso prozedura judiziala hasteak berekin ekarriko du emanda dauden gerorapen edo zatikapenak eraginkortasunik gabe geratzea eta dauden zor guztiak berehala ordainaraztea.

Horrela, gerorapen edo zatikapen eskaera bat, masa pasiboaren parte den zor bati buruzkoa, zordunaren konkurtso prozedura judiziala hasi eta gero aurkeztu bada, eskaera ez da onartuko. Prozedura hori hasi aurretik aurkeztutako eskaeren kasuan, ulertuko da haieran atzera egin dela prozedura judiziala hasi den egunean.

4. Artikulu honetan aipatzen diren bermeak exetutzeko, aplikagarria izango da Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorrak 172. artikuluan jasotakoa eta, dagokion kasuan, erregelamendu honen 75. artikuluan araututako prozedura. Lortzen den zenbateko likidoa geratzen den zorra ordaintzeko erabiliko da, kostuak, berandutze interesak eta errekarquak barne.

47. artikulua. Ordainketa aurreratua.

1. Behin gerorapena eskatuta, ordaintzera behartutakoak osorik edo zati batean aurrera dezake zorraren ordainketa. Hala egiten badu, ordainketa egin izana jakinarazi behar dio gerorapen espedientea bideratzen duen organoari.

2. Aurreko apartatuan jasotako kasuetan, ordainketa horiek ez badute estaltzen zor geroratu edo zatikatu osoa, berekin ekarriko dute epeen mugaeguna aurreratzea eta bidezkoak diren berandutze interesak berriro kalkulatzeko. Dena den, zergadunak beti eskatu ahal izango du kuoten zenbatekoa murriztea eta berandutze interesak berriro kalkulatzeko, salbu eta erregelamendu honen 42. artikuluko 1. apartatuan aipatzen diren zatikapenak direnean.

Alde horretatik, Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuak gutxienezko kopuru bat finkatu ahal izango du, foru agindu bidez, ordainketa aurreratuarako.

3. sekzioa. Konpentsatzea

48. artikulua. Konpentsatu daitezkeen zorrak.

Foru Ogasunaren aldeko izaera publikoko zorrak, borondatezko epekoak izan edo epe exekutibokoak izan, osorik edo zati batean iraungi daitezke hark egintza administratiboa dela medio zordunaren alde onartutako kredituekin konpentsatuta.

49. artikulua. Ordaintzera behartutakoak eskatutako konpentsazioa.

1. Ordaintzera behartutako pertsonak konpentsazioa eskatzen duenean, eskaera egin beharko dio Zergabilketako eta Zerga Bulegoetako Zuzendariorde Nagusiari, eta bertan datu hauek jasotakoak:

a) Zergapekoaren eta, hala badagokio, ordezkariaren izen-deiturak edo sozietatearen izen osoa, identifikazio fiskaleko zenbakia eta zerga helbidea.

b) Konpentsatzea nahi den zorraren identifikazioa. Horren zenbatekoa eta kontzeptua adierazi behar dira gutxienez, bai eta borondatezko aldian ordaintzeko epemuga ere.

c) Eskatzailearen aldeko kredituaren identifikazioa, konpentsatzeko eskaini denarena. Horren zenbatekoa, kontzeptua eta organo kudeatzailea adierazi behar dira gutxienez.

d) Lekua, data eta eskatzailearen sinadura.

2. Konpentsazio eskaerarekin batera, agiri hauek aurkeztu behar dira:

a) Autolikidazio eredu ofiziala, behar bezala beteta, konpentsatzea nahi den zerga zorra autolikidazio bidez zehaztu bada. Dena den, interesatuak ez badu zertan autolikidazioa aurkeztu, jadanik Zerga Administrazioaren esku egoteagatik, aurkezpen eguna eta prozedura adierazi beharko ditu.

b) Fiskalitaterako eta Finantzatarako Departamentuko kontabilitate bulegoaren, edo gastu edo ordainketarako zentro edo organismo kudeatzailearen ziurtagiria eskatu izanaren frogagiria. Hor jasota utzi behar da ordaindu gabeko kreditu onartua egon badagoela eta, interesatuak eskatuta, kreditua abonatzeko tramiteak eten direla harik eta konpentsazio prozeduraren ebazpena jakinarazi arte.

Fiskalitaterako eta Finantzatarako Departamentuko foru diputatuak bidezko xedapenak eman ditzake aipatu ziurtagiri administratiboak arautzeko.

Konpentsazio gisa eskainitako kreditua zerga itzulketa batetik badator, aurreko ziurtagiriaren ordeztura hura onartzen duen egintza, ebazpena edo sententzia aurkeztu beharko da.

3. Eskaerak ez baditu baldintzak betetzen edo harekin batera ez badira artikulua honetan aipatutako agiriak aurkezten, Zergabilketako eta Zerga Bulegoetako Zuzendariorde Nagusiak hamar eguneko epea emango dio eskatzaileari akatsa zuzendu edo derrigorrezko agiriak aurkez ditzan, eta adieraziko dio hala egin ezean haren eskaera ez aurkeztutzat hartuko dela eta besterik gabe artxibatuko dela.

Konpentsatzeko eskaera borondatezko epean aurkeztu bada eta akatsak zuzentzeko errekerimenduari erantzuteko denbora borondatez ordaintzeko epearen ondoren amaitu eta akatsak zuzendu ez badira, premiamenduzko prozedura hasiko da premiamenduzko probidentzia jakinarazita.

Interesatuak akatsak zuzentzeko errekerimenduari epe barruan erantzun arren akatsak zuzendutzat ez direnean hartzen, konpentsazio eskaera ukatu egingo da.

Errekerimendu hori ez da egingo, behin eskaera aztertu eta horretan jasotako datuak Administrazioak bere esku dituenekin alderatu ondoren, frogatuta geratzen denean interesatuak eskainitako kreditua ez dagoela edo, bestela, kreditu hori zerga zorra izanik eskaerarik ez dagoela egiaztatzen denean. Horrela gertatzen denean, konpentsazio eskaera ez aurkeztutzat hartuko da, eta besterik gabe artxibatu egingo da.

4. Eskaera epe exekutiboan aurkezten denean, ondasun bahituak besterentzeko jarduketak eten daitezke.

5. Zergabilketako eta Zerga Bulegoetako zuzendariorde nagusiak konpentsazioa deklaratu du, zerga araudian eta araudi zibilean izaera orokorrean jarritako baldintzak edo, hala badagokio, aplikaziozko legerian berariaz jarritakoak betetzen direnean.

Eskaera ukatzeko ebazpena bada, ondorio hauek izango dira:

a) Eskaera borondatez ordaintzeko epean aurkeztu bada, ukatzeko erabakia jakinaraztearekin batera martxoaren 8ko 2/2005 Zergen Foru Arau Orokorrak 61.2 artikuluan jasotako ordainketa epea hasiko da. Epe horretan ordaintzen ez bada, epe exekutiboa hasiko da, eta premiamenduzko prozedurari hasiera eman beharko zaio martxoaren 8ko 2/2005 Zergen Foru Arau Orokorrak 171.1 artikuluan jasotakoaren arabera.

Epe horretan ordaintzen bada, borondatez ordaintzeko epea amaitu ondorengo egunetik aurrera sortutako berandutza interesak likidatuko dira, harik eta ukapena jakinaraztean irekitako epearen barruan ordaindutako sarreraren egunera arte. Epe horretan ez bada ordaintzen, aldiz, epe hori amaitu arte likidatuko dira interesak. Nolanahi ere, ondoren ere interesak sortuko dira, martxoaren 8ko 2/2005 Zergen Foru Arau Orokorrak 26. artikuluan jasotakoaren arabera.

b) Eskaera ordaintzeko epe exekutiboan aurkeztu bada, premiamenduzko prozedura hasi beharko da, martxoaren 8ko 2/2005 Zergen Foru Arau Orokorrak 171.1 artikuluan jasotakoaren arabera, non eta ez den lehenago hasi.

6. Konpentsazioa eskatzea ez da oztopo izango gainerako zorra geroratu edo zatikatzeko eskatzeko.

7. Ebazpena sei hilabeteko epean jakinarazi beharko da, tramitazioaz arduratzen den Administrazio eskudunaren erregistroetako batean eskaerari sarrera ematen zaion egunetik aurrera.

Epe hori amaitu bada ebazpena jakinarazi gabe, interesatuek eskaera ezetsizat har dezakete errekurtsua jarri edo ebazpen espresua itxoiteko.

50. artikulua. Entitate publikoen zorrak ofizioz konpentsatzea.

1. Ofizioz konpentsatu daitezke, behin borondatez ordaintzeko epea amaituta, lurralde ente batek, organismo autonomo batek, Gizarte Segurantzak edo zuzenbide publikoko entitate batek Foru Ogasunaren alde ordaindu behar dituen zor epez amaituak, likidoak eta exijigarriak.

2. Aipatu entitateen alde onartutako zerga kredituekin konpentsatuko dira zorrak, bai eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren edo foru organismo autonomoen gastu aurrekontuaren exekuzioagatik edo aurrekontu sarreraren itzulketagatik haien alde onartutako gainerako kredituekin ere.

51. artikulua. Foru Ogasunaren beste hartzekodun batzuen zorrak ofizioz konpentsatzea.

1. Herri Ogasunaren zordun bat, aurreko artikuluan sartu gabea, aldi berean haren hartzekodun bada aitortutako kreditu batengatik, borondatezko epea behin igaro

ondoren, bai zorra eta bai epe exekutiboko errekaruak kreditu horrekin konpentsatuko dira ofizioz, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorrak 72.4 artikuluan xedatutakoa aplikagarri denean izan ezik.

2. Dena den, ofizioz konpentsatuko dira borondatez ordaintzeko epean honako hauek:

a) Kudeaketa prozeduren ondorioz ordaindu eta itzuli beharreko kopuruak. Diferentzia ordaindu edo itzuli egin beharko da.

b) Aurreko likidazio bat baliogabetu ondoren beste bat egiteagatik ordaindu eta itzuli beharreko kopuruak. Horrelakoetan, likidazio berriaren jakinarazpenean behar den kopurua konpentsatuko da, eta ordaintzera behartutakoari diferentziaren zenbatekoa jakinarazi behar zaio martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergen Foru Arau Orokorrak, 61.2 artikuluan ezarritako epean diru-sarrera egin dezan. Kasu horretan, zilegi izango da sortutako berandutze interesak likidatzea aipatutako foru arauaren 26.5 artikuluan xedatutakoaren arabera, eta interes horiek erabaki berean konpentsatuko dira.

c) Zerga betebeharrak lotuengatik ordaindu eta itzuli beharreko kopuruak, baldin eta martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergen Foru Arau Orokorrak, 231.3 eta 244.7 artikuluetan aipatzen dituen errekurso edo erreklamazio ekonomiko-administratiboaren ebazpenak exekutatzearen ondorio badira. Diferentzia ordaindu edo itzuli egin beharko da. Kasu horietan, zilegi izango da sortutako berandutze interesak likidatzea aipatutako foru arauaren 26.5 artikuluan xedatutakoaren arabera, eta interes horiek erabaki berean konpentsatuko dira.

3. Zerga Ikuskaritzak egiaztapen eta ikerketa jarduketara beraren emaitzak dokumentatzeko egiten dituen aktetatik zeinu diferenteko likidazioak ondorioztatzen badira subjektu pasibo edo atxikitzaile berberari dagokionez, likidatzeko eskumena duen Ikuskaritzako organoak ofizioz erabakiko du zorrak eta kredituak konpentsatzea emaitzen zenbatekoraino. Erabakitako konpentsazioak ez du galaraziko gerorapena edo zatikapena onartzea gainerako zerga zorrerako, halakorik bada.

52. artikulua. Konpentsazioaren ondorioak.

1. Behin konpentsazioa erabakita, zorrak eta kredituak iraungitzat hartuko dira zorraren zenbatekoarekin bat datorren kopuruan. Erabaki hori interesatuari jakinaraziko zaio, eta zorra iraungi izanaren frogagiri gisa balio izango du.

2. Kreditua zorra baino txikiagoa bada, honelaxe jokatu behar da:

a) Kreditua gainditzen duen zor zatiarekin araubide arruntaren arabera jokatuko da. Premiamenduzko prozedura hasiko da, behin mugaeguna iritsita ez bada ordaindu; edo, bestela, prozedura harekin jarraitu behar da lehenagotik hasita badago.

b) Zorraren zenbatekoarekin bat datorren zatiari dagokionez, 1 apartatuan jasotakoaren arabera jokatu behar da.

3. Kreditua handiagoa bada zorra baino, behin konpentsazioa deklaraturata, diferentzia ordainduko zaio interesatuari.